

ROSARIO ARTOLA



Gitarra jotzen abiyatzian
lanak egiñ ondorian,
echeko denak jartzen dituzu
oso umore onian;
eta zedorren kanta politak
kantatzen dituzunian,
choraturikan egoten gera
zedorren aldamenian.

Ezta komeni anayak orla
arreba famatutzia,
bañan alare pena litzake
iñilikan geratzia;
nik nai detana ezta besterik
egiya aitortutzia,
eta merezi dezun neurriyan
zure izena onratzia.

Bertsuak jartzen yayua zera
batez ere ipuiyak,
ilbanatu ta jartzen dituzu
pentsamentu egokiyak;
askok letu ta esango luke
denak dirala egiyak,
ain grazi onez antolatutzen
dituzu kontu berriyak.

Itz-jostalluan ez da sortuko
zuretzako itz gaitzarik,
ez eta ere ikaratuko
zaituben batozgoarik;
jatortasuna zintzillik dezu
erdi parrez ezpañetik,
izenbat alditan uzten dituzun
lagunak abo zabalik!

Zintzotasuna zure lanetan
dezu beti zuk izaten,
gero denbora dezun guztiyan
zerbait lan eder ikasten;
doñu moldatzen, bertso egiten
edo gitarchua jotzen,
bestela berriz libru on enbat
ikas-bidez irakurtzen.

Senide denak maite zaitugu
au da biziro egiya,
zure begitik echeko denak
ikusten degu argiya;
Jaunak goitikan emana dezu
orlako doai-graziya,
Berak dizula komeni bada
luzaro eman biziya.

JOSÉ ARTOLA.

